

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa izango da bazkideren bat eta hainbat hornitzaile edukitzea. Gure hornitzaileei dagokionez, **modaz, diseinuaz, programazio digitalaz eta marketinaz dakiten profesionalak** aukeratuko ditugu. Hauei esker aplikazioaren itxura eta erabilgarritasuna bermatuko dugu.

Alde batetik, **influencerren zerbitzuak** azpikontratatu ditugu gure APPa sustatzeko eta publizitate-eremuan lagun diezaguten, kanpainak, argitalpenak, argazkiak, bideoak... eginez. Baita **programazio digitalaren profesionala eta garraio enpresaren zerbitzua** azpikontratatu ditugu.

Bestalde, gure proiekturako diru inbertsioa ezinbestekoa denez, modaren munduarekin zerikusia daukan bazkide bat bilatuko dugu. Honen ardura ez da ekonomikoa bakarrik izango, baizik eta APParen zati baten ardura hartzea eskatuko baitiogu. Bere ekarpena ez litzateke ekonomikoa bakarrik izango, baita ikuspegi berriak, esperientzia eta erabaki garrantzitsuetan laguntza emango baitigu.

Horrelako kideak edukitzea oso garrantzitsua da guretzat. Haiei esker proiektuaren garapena modu eraginkorragoan gauzatu daiteke bazkide horren laguntza aprobetxatuz. Azkenean, guztion arteko lankidetzak gure proiektua indartu egiten du eta arrakasta izateko aukerak nabarmen handitzen ditu.

Mikroenpresekin (enpresa txikiak) **aliantzak** izan nahi ditugu batez ere diru gehiago irabazteko. APPan, gure bezeroek beste enpresa batzuetako produktuak ere erosi ahal izango dituzte. Kontuan izan behar da enpresa horiek guztiek kontsumo arduratsua babesten dutela, eta, beraz, produktu guztiak material biodegradagarriekin eginda daudela, ingurumenari laguntzeko eta jendea klima-aldaketaz kontzientziatzeko, biztanleria osoari eragiten dion arazoa baita.

Aliantza guzti hauek funtsezkoak izango dira, gure negozio eredua optimizatzeko, bezero gehio edukitzeko eta publiko gehiagorengana iristeko.

